

2020KO OTSAILAREN 11N UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2019KO ABENDUAREN 2KO ETA ABENDUAREN 30EKO BILKUREN AKTAK).

2.- EUDEL. UDAL LANGILEEN 2020 ORDAINSARIEN GEHIKUNTZARI BURUZKO GOMENDIOA.

3.- PAPERTEGITIK JASO ZIREN LIBURUAK ARANZADIRI GORDETZAN EMATEARI BURUZKO ERABAKIA.

4.- MURGIL ERAIKUNTZAK S.L. DONEJAKUE BIDEKO PEREGRINO ETXEA EGITEKO LANEN FAKTURAK.

5.- OLARAN 7 ETXEAN IRISGARRITASUNA AHALBIDETZEKO LANEN ONDORIOZ ZORU PUBLIKOAREN EMATEA.

6.- AMEZTI ELKARTEAREN ETA ETXEKO SARRERAN IRISGARRITASUNA AHALBIDETZEKO LANEN ONDORIOZ ZORU PUBLIKOAREN EMATEA.

7.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

8.- GALDE ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).

Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen).

Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)

Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen).

Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).

Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).

José Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2019KO ABENDUAREN 2KO ETA ABENDUAREN 30EKO BILKUREN AKTAK).

Alkateak, 2019ko abenduaren 2ko eta abenduaren 30eko bilkuren aktetan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Ez da inolako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen dira adierazitako aktak.

2.- EUDEL. UDAL LANGILEEN 2020 ORDAINSARIEN GEHIKUNTZARI BURUZKO GOMENDIOA.

EUDEL-EK UDALHITZ hitzarmenaren negoziazio kolektiboari buruz, zirkularra bidali du, Udalei, zenbait neurri har ditzaten gomendatuz.

Zentzu horretan, honako gomendio hau egiten zaie EAEko udalei:

“ 2020ko urtarrilaren 22an, 2/2020 Errege Lege-dekretua, urtarrilaren 21ekoa, argitaratu da Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE), *sektore publikoaren esparruko ordainsariei buruzko premiazko neurriak hartzekoa.*

Aipatutako Errege Lege-dekretu horrek sektore publikoko langileen ordainsarien gehikuntzak arautzen ditu 2020. urteari begira, eta, ildo horretatik, soldata igoera finko bat, eta, ekonomiaren hazkundearekin lotuta, ehuneko osagarri bat gehitzea aurreikusten du. Zehazki, sektore publikoaren zerbitzura ari diren langileen gehikuntzak onartzeko ezinbestekoak diren zenbait alderdi arautzen ditu berariaz, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera eraginkorrak izango direnak; modu zehatzagoan, % 2ko igoera finkoa eta funts gehigarrietako % 0,3ko igoera xedatzen ditu; azken horiek, hain justu, produktibitatea edo eraginkortasuna hobetzeko plan eta proiektuetarako banatzen direnei dagozkie, eta, administrazio bakoitzean, erakunde sindikalekiko negoziazioekin daude lotuta.

Zehatz-mehatz, hauxe xedatzen du 2/2020 Errege Lege-dekretuak 3.Bi artikuluan:

Bi. 2020an, sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileen ordainsariak ezin izango dira gehitu 2019ko abenduaren 31n indarrean zirenak baino ehuneko bi baino gehiago, homogeneotasunaren arabera bi aldietarako, langileei dagokienez nahiz haien antzintatasunari begira. Xede horretarako, 2019ko ordainsarrietan, BPGd-aren bilakaerari lotutako ehuneko 0,25eko gehikuntza urteko zenbatekotan hartuko da aintzat. Oro har, gizarte-ekintzako gastuek 2020an ezin izango dute izan gehikuntzarik 2019koekiko. Horri dagokionez, gizarte-ekintzako gastuak onurak, osagarriak edo hobekuntzak direla jo da, ez daukatenak zerikusirik egindako lanaren kontraprestazioekin, azken horien xedea zenbait premia asetzea baita, sektore publikoaren zerbitzura diharduten langile horien gorabehera pertsonalen ondorioz.

Horrez gain, Barne Produktu Gordinaren gehikuntza, 2019ko prezio konstanteetan, ehuneko 2,5era edo gehiagora iritsiko balitz, soldata beste % 1 igoko litzateke 2020ko uztailaren 1etik aurrera. Adierazitako ehuneko 2,5 horretatik beheragoko gorakaden kasuan, gehikuntza proportzioan murriztuzko da, aipatutako ehuneko 2,5 horrekiko izan duen murrizketaren arabera; beraz, hauek izan dira gehikuntzak oro har:

BPGd-a 2,1 bada: % 2,20

BPGd-a 2,2 bada: % 2,40

BPGd-a 2,3 bada: % 2,60

BPGd-a 2,4 bada: % 2,80

Atal honetan xedatutakoaren ondorioetarako, BPGd-a igotzeari dagokionez, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) urte bakoitzean argitaratutako BPGd-aren aurrerapenaren estimazioa hartuko da kontuan. INEk BPGd-aren aurrerapena argitaratu ondoren, eta enplegu publikoa eta lan-baldintzak hobetzeko 2018ko martxoaren 9ko jarraipen-batzordeari jakinarazita, iguera aplikatzea onetsiko da, hala badagokio, Ministro Kontseiluaren erabaki bidez. Erabaki horren berri emango zaie autonomia-erkidegoei, hiri autonomoei eta Udalerri eta Probintzien Espainiako Federazioari.

Gainera, soldata-masaren ehuneko 0,30eko gehikuntza osagarria baimendu ahal izango da, besteak beste, produktibitatea edo eraginkortasuna hobetzeko plan eta proiektuak ezartzeko, funtzio parekagarriak dituzten lanpostuen artean dauden osagarri espezifikoak berrikusteko, destino-osagarriak homologatzeko, edota pentsio-planetako ekarpenetarako.

Aurrekoa kontuan hartuta, 2/2020 Errege Lege-dekretua indarrean sartu ondoren, eta 2018ko eta 2019ko ekitaldietako ordainsarien gehikuntzei dagokionez EUDELek egin izan duenari jarraiki, Euskadiko udalei honako gomendio hau egitea egoki dela deritzo EUDELek, izan daitezkeen interpretazioak argitzen laguntzeko: GOMENDIOA

- **3.Bi artikuluko lehen paragrafoan** adierazten denari dagokionez, legeak baimendutako maximoa gehitzea langileen ordainsaria, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginkortasunarekin; hau da, 2019ko abenduaren 31n indarrean zirenekiko %2, homogeneousotasunaren arabera bi aldietarako, langileei dagokienez nahiz haien antzinasunari begira.
- **3.Bi artikuluko bigarren blokean** zehazten denari lotuta, eta kontuan hartuta Barne Produktu Gordinaren gehikuntza batzuen kasuan soldatak beste % 1 arte igotzeko aukera biltzen duela, gaur egun ez dakigu beteko den premisa hori, eta, ildo horretatik, Ministroen Kontseiluak zehazten eta onesten duena hartuko da kontuan. Dena dela, eta 3.Bi artikuluan xedatzen denarekin bat etorrira, gehikuntza horrek 2020ko uztailaren 1etik aurrera izango du eragina.
- **3.Bi artikuluko azken paragrafoak** soldata-masaren % 0,30eko gehikuntza osagarria egiteko aukera arautzen du, eta, udal-autonomiaren kalterik gabe, honako **gomendio** hau egiten diegu Euskadiko udalei: finantzen eta aurrekontuen esparruan dituzten aukeren neurrian, soldata-masaren % **0,30**eko gehikuntza osagarria onets dezatela. 3.Bi artikuluko horretan jasotzen diren lege-formulen arabera banatuko da zenbateko hori, edo aplikagarri den beste edozein formularen arabera, udal-autonomiaren eta negoziazio kolektiboaren esparruan, betiere.

Zentzu horretan, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko lau zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena. Udal langileen ordainsariak legeak baimentzen duen gehiena igotzea, hau da, %2 2019ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta.

Bigarrena.- Aipatutako gomendioetako bigarren multzoari dagokion gomendia onartzea (Bi artikuluko bigarren blokean zehazten denari lotuta, eta kontuan hartuta Barne Produktu Gordinaren gehikuntza batzuen kasuan soldatak beste % 1 arte igotzeko aukera biltzen duela, gaur egun ez dakigu beteko den premisa hori, eta, ildo horretatik, Ministroen Kontseiluak zehazten eta onesten duena hartuko da kontuan. Dena dela, eta 3.Bi artikuluan xedatzen denarekin bat etorruta, gehikuntza horrek 2020ko uztailaren 1etik aurrera izango du eragina).

Hirugarrena.- Aipatutako gomendioetako hirugarren multzoari dagokion gomendia onartzea Bi artikuluko azken paragrafoak soldata-masaren % 0,30eko gehikuntza osagarria egiteko aukera arautzen du, eta, udal-autonomiaren kalterik gabe, honako gomendio hau egiten diegu Euskadiko udalei: finantzen eta aurrekontuen esparruan dituzten aukeren neurrian, soldata-masaren % 0,30eko gehikuntza osagarria onets dezatela. 3.Bi artikuluko horretan jasotzen diren lege-formulen arabera banatuko da zenbateko hori, edo aplikagarri den beste edozein formularen arabera, udal-autonomiaren eta negoziazio kolektiboaren esparruan, betiere.

Laugarrena.- Doakienei erabaki hau jakinaraztea.

3.- PAPERTEGITIK JASO ZIREN LIBURUAK ARANZADIRI GORDETZAN EMATEARI BURUZKO ERABAKIA.

Alkateak hitza harturik gaiaren azalpena egiten du.

Zegamako udaleko Kultura sailak (Jabier Otaegi Goia zinegotzia buru zela), Zegamako Papertegia itxi zenean (1987) eta jakitun beraien etxean Ernesto eta Angel Jimenez Caballeroren liburutegia zegoela, Kultura Batzordearen proposamenez izan zezaketen balio kulturala eta historikoa kontutan hartuz, liburu hauek udaletxean jaso ziren. Honela, urte luze hauetan ganbaran gorde ondoren, eta udalak, Memoria Historiakoren azterketa bultzatu duen testuinguruan (1936-1945), egokia iruditu zaio udal honi, liburu hauek Aranzadi Zientzia Elkarteari dohaintzan ematea, bertan gaiarekin lotutako liburu garrantzitsuak daudelako, besteak beste.

Era honetara, Zegamako udalaren helburua, liburu hauek leku egoki batean gordetzea da eta aldi berean material hau ikerketarako edonoren eskura jartzea.

Honela, espedientean jasota dago Zegamako Udalak Aranzadi Zientzia Elkarteari ematea proposatzen den liburuen zerrenda.

Emate proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko lau zinegotzien aldeko botoekin,

aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehen.- Adierazitakoaren arabera, Aranzadi Zientzia Elkarteari Zegamako Papertegitik jaso ziren liburuak dohaintzan ematea.

Bigarrena.- Adierazitakoaren arabera, Zegamako udalaren helburua, liburu hauek leku egoki batean gordetzea da eta aldi berean material hau ikerketarako edonoren eskura jartzea.

Zentzu honetan, Zegamako Udalak liburu horiek beharko balitu, besteak beste, erakusketak edo kultur ekintzak burutzeko, aldi baterako beharrezkoak izan daitezkeen aleak Zegamara ekartzeko aukera izango du.

Hirugarrena.- Alkarteari, adierazitakoa bideratzeko beharrezkoak izan daitezkeen agiriak sinatzeko aginpidea ematea.

Laugarrena.- Doakienei erabaki hau jakinaraztea.

4.- MURGIL ERAIKUNTZAK S.L. DONEJAKUE BIDEKO PEREGRINO ETXEA EGITEKO LANEN FAKTURAK.

Alkateak, 2019ko uztailaren 1eko Ebazpenaren bidez (Udalbatzarrak 2019ko uztailaren 24an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez berretsia), MURGIL ERAIKUNTZAK S.L. (IFK.-B-20986428) enpresari esleitu zion Donejakue Bideko Peregrino Etxearen lanak egiteko kontratua (1 atala: obra gehigarriak). Prezioa: 129.842,43 euro gehi 27.266,91 euro BEZ (%21), guztira 157.109,34 euro.

Lan hori burutzeagatik, Murgil Eraikuntzak S.L. enpresak, honako fakturak eta lan egiaztagiriak aurkezten ditu:

- 001/2020 fk.zb. (3. Lan egiaztagiria): 31.087,48 euro BEZ barne.
- 00/2020 fk.zb. (4. Lan egiaztagiria): 54.817,48 euro BEZ barne.

Hau ikusirik, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko lau zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehen.- Adierazitako faktura onartzea.

Bigarrena.- Fakturaren gastua onartzea, 2019ko Aurrekontu Orokorraren 2019 1. 0000.601.03.459.00 2018 aurrekontu sailari egotziz, eta ordainketa bideratuz.

5.- OLARAN 7 ETXEAN IRISGARRITASUNA AHALBIDETZEKO LANEN ONDORIOZ ZORU PUBLIKOAREN EMATEA.

Espedientea ikusirik.

Olaran 7 etxean irisgarritasuna ahalbidetzeko helburuarekin Zegamako Udalak, Olaran 7 etxeke bizilagunen partaidetzarekin, zenbait lan bideratu ditu. Zentzu horretan, etxearen sarbidean zeuden eskailerak kenduko dira eta ataria kanpoaldera aterako da, bizilagunak

barnean goiko pisuetara igo ahal izateko eserleku-igogailu bat jarritz.

Ondorio horietarako, beharrezkoa egiten da, eremu publikoa 3,44 m²tan gutxi gorabehera okupatzea.

Hiri-eremuak berritu, birsortu eta birgaitzeko, ekainaren 26ko, 8/2013 Legeak bere 12.1.b) artikuluan adierazitakoa jarraituz, bertan ezarritako baldintza teknikoak betetzen direla irizten da.

Horren arabera, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko lau zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Olan 7 etxean irisgarritasuna ahalbidetzeko helburuarekin bideratu behar diren lanak gauzatu ahal izateko, adierazitako jabe-elkarteari eremu publikoa 3,44 m²tan okupatzeko baimena ematea.

Bigarrena.- Adierazitako okupazioa, eraikin hori mantentzen den bitartekoa izango da, eta hau kenduko balitz, eremua publikoa izango da berriz ere.

Hirugarrena.- Doakienei hau jakinaraztea.

6.- AMEZTI ELKARTEAREN ETA ETXEKO SARRERAN IRISGARRITASUNA AHALBIDETZEKO LANEN ONDORIOZ ZORU PUBLIKOAREN EMATEA.

Espedientea ikusirik.

Alkateak, 2019ko abuztuaren 1ean eman zuen ebazpenaren bitartez, Amezti Elkarteari, elkarteko sarrera eta bertako etxerako sarrera irisgarritasunera egokitzeko (gurpildun aulkiei pasabidea emanez) lan baimena eman zitzaion.

Adierazitako lanak burutzeko, beharrezkoa izan da, espaloi eremu publikoa 2,85 m²tan gutxi gorabehera okupatzea.

Hiri-eremuak berritu, birsortu eta birgaitzeko, ekainaren 26ko, 8/2013 Legeak bere 12.1.b) artikuluan adierazitakoa jarraituz, bertan ezarritako baldintza teknikoak betetzen direla irizten da.

Horren arabera, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko lau zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Amezti Elkartearen sarreran irisgarritasuna ahalbidetzeko helburuarekin bideratu behar diren lanak gauzatu ahal izateko, adierazitako jabe-elkarteari eremu publikoa 2,85 m²tan okupatzeko baimena ematea.

Bigarrena.- Adierazitako okupazioa, eraikin hori mantentzen den bitartekoa izango da, eta hau kenduko balitz, eremua publikoa izango da berriz ere.

Hirugarrena.- Doakienei hau jakinaraztea.

7.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 010/0120 erabakia, urtarrilaren 17koa, Udal-Idazkariak bere lanpostua telelana bidezko modalitate ez-presentziala bidez burutzeko aurkeztu duen eskaera onartzea.
- 011/0120 erabakia, urtarrilaren 23koa, SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS, S.A. S.M.E. (IFK: 83052407), enpresari, "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez posta zerbitzua kontratatzeako esparru akordioan" (2. sorta) oinarritutako kontratua esleitzuz.
- 012/0120 erabakia, urtarrilaren 23koa, GUREAK MARKETING S.L.U. (NIF: B20158218), enpresari, "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez posta zerbitzua kontratatzeako esparru akordioan" (1. sorta) oinarritutako kontratua esleitzuz.
- 013/0120 erabakia, urtarrilaren 23koa, biztanleen ofiziozko baja bideratuz.
- 014/0120 erabakia, urtarrilaren 24koa, Ostatuaren biltegiak sortutako ur eta argindar gastuak ordaintzea onartuz.
- 015/0120 erabakia, urtarrilaren 31koa, Aitxuri Herri Eskolako Guraso Elkarteak otsailaren 21ean inauteri festa antolatzeako baimena emanez.
- 016/0120 erabakia, urtarrilaren 31koa, barne lanak egiteko baimena emanez.
- 017/0120 erabakia, urtarrilaren 31koa, lan baimena (hoditeria egokitzea) emanez.
- 018/0120 erabakia, urtarrilaren 31koa, 2 zenbakidun fakturen erlazioa (urtarrila); guztira 37.097,00 euro, onartuz.
- 01/0220 erabakia, otsailaren 3koa, landabideak erabiltzeko ezarritako baimena emanez.
- 02/0220 erabakia, otsailaren 3koa, txakurraren zaintza egokitzeari buruzkoa.
- 03/0220 erabakia, otsailaren 3koa, erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa onartuz.
- 04/0220 erabakia, otsailaren 3koa, erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa onartuz.
- 05/0220 erabakia, otsailaren 3koa, erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa onartuz.
- 06/0220 erabakia, otsailaren 3koa, erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa onartuz.

- 07/0220 erabakia, otsailaren 6koa, Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergan eskatutako hobariari buruzko (ukatuz).
- 08/0220 erabakia, otsailaren 6koa, landabideak erabiltzeko ezarritako baimena emanaz.
- 09/0220 erabakia, otsailaren 6koa, Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergan eskatutako hobariari buruzko (ukatuz).
- 010/0220 erabakia, otsailaren 6koa, hutsik dagoen Idazkari-Kontuhartzaile postua betetzeko egingo den lehiaketa arrunta eraenduko dituzten berarizko oinarriak onartuz.
- 011/0220 erabakia, otsailaren 11koa, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen deialdia dela eta hauteskunde lokalen eta kartelen kokapenari buruzkoa.
- 012/0220 erabakia, otsailaren 11koa, 4 zenbakidun fakturen erlazioa (otsaila); guztira 52.460,00 euro onartuz.
- 013/0220 erabakia, otsailaren 11koa, Zegamako Olan 7 etxeko ataria erreformatzeko lanak burutzeko aurkeztutako Segurtasun eta Osasunari buruzko plana onartuz.

8.- GALDE ERANTZUNAK.

- Txakurren zaintza egokitzeari buruzko ebazpenaren ildotik, Alkateak, azkenaldian jaso diren kexa, eta horien inguruan bideratutako egintzen azalpena ematen du. Horrenbestez, Lasarteko Udaleko aditu batekin edukitako bilera jakinarazten du eta zenbait txakur jabeekin ere bilerak egin direla adierazten da. Zentzu honetan, herriko txakur jabeei bilera orokor batera deitzea aztertzen ari dela dio, bilera horretan txakurren zaintza eta jabetza nola bideratu behar duten azalduz, eta eremu publikoetan zer-nola eduki behar duten jakinaraziz. Bilkurakideak, gaiari buruz eztabaidatzen dute.
- Iosune Azurmendi Telleria zinegotziak (EH Bildu) adierazten du aurreko bilkuran haurreskolako konponketa lan batzuk itsasgamak egingo zituela adierazi zela, eta gaurdaino ez direla burutu. Alkateak erantzuten du, konpontzeko eskaera egin zitzaiela, eta Julian Iraola Lapizondo zinegotziak (Zegama Lantzen) zehazten du, beraien artean (eskola eta lana burutuko duen enpresako ordezkariak) egon behar direla. Iosune Azurmendi Telleria zinegotziak esaten du, zer erantzun ez dakiela, eta horrenbestez, Alkateak adierazten du arduradunei deituko diela, lanak aspaldi eginak egon behar zirela adieraziz.

Azertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko seiak eta berrogeita hamar minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasotzeko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2020kok

O.E./ V°B°**ALKATEAK/EL ALCALDE****Diligencia.**

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2020.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO